

16. TESTUA. BIZKAIAN ETA GIPIZKOAN KONTZERTU EKONOMIKOAK EZEZTATZEKO LEGE-DEKRETUA (1938-06-23)



1.- Identifikatzea

Lehenengo mailako testua da, lege bat, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua (Bando Nazionalekoan), lege bat da eta noski beraz, izaera juridikoa duena.

Egilea, Francisco Franco y Bahamonde (Ferrol, 1892-1975), momentu honetan gerran dauden Bando Nazionaleko buruzagia, Estatuaren Batzar Teknikoaren burua zehazki. Bando nazionalak kontrolatzen dituen lurraldeen burua eta ejertzitoaren "Generalisimoa". Buruzagitza hori luzatu egingo da etorkizunean eta Espainiako diktadore bilakatuko da 1975. urtera arte.

Lege hau, 1937ko ekainaren 23an adostua eta 24an argitaratua Burgosen (Gobernu Nazionalaren hiria). Espainiar guztiei bideratutako testua bada ere, eragin hurbila, Bando Nazionalak kontrolatzen dituen eremuetako biztanleengan izango du, eta zehazki, Euskal Herrian, bertako biztanleei eragiten baitie.

2) Ideia nagusiak

Idea nagusia, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako egoera ekonomiko bereziak, pribilegio hutsak direla da, eta Gipuzkoa eta Bizkaia ez dutenez altxamendu nazionalarekin bat egin, pribilegio hori kentzen zaiela

Pribilegio horiek aldundien autonomian eta biztanleen ahalegin txikiagoan oinarritzen dira. Eta ondorioz, Espainiaren beharrei indar gutxiagoz lagundu egin zaiela lurralde hauetan.

Pribilegio horiek (pribilegioak izatea azpimarratzen da), Gipuzkoak eta Bizkaiak, Espainia traizionatzeko erabili dute eta Mugimendu Nazionalaren aurka armak hartu zituzten.

Ondorioa erraza da ateratzen: pribilegioak galtzen dituzte.

Leial izan diren probintziak berriz, Araba eta Nafarroa, egoera berezi horrekin jarraituko dute.

3) Inguruabar historikoak

Aurretik, aipatzen den Kontzertu Ekonomikoa zer den azalduko dugu. Liberalismoak ekarritako iraultza eta aldaketa sakonen ondorioz, Euskal Probintzietan krisi handia sortua zen XIX. mendetik. Foruen defentsan altxatu egin ziren euskaldun asko behin eta berriz, Gerra Karlistak dira horren adibide nabarmenena. Azkenean, Errestaurazioarekin batera, Cánovas del Castillo azken gerra karlista irabazi eta probintzia hauetako Foruak ezabatu zituen, hauen ordez, finantziario sistema berezi eta partikular bat ezarriz, Kontzertu Ekonomikoa. Nolabaiteko autonomia ematen zion Probintzia bakoitzeko Aldundiari zergak jaso eta kudeatzeko. Kontzertu Ekonomikoak beraz, garrantzi ekonomikoa izatez aparte, bazuen ere garrantzi sinboliko handia euskal abertzaleentzat.



Dakigunez militar batzuk eta eskuineko indarrak Errepublikako gobernuaren kontra altxatu eta gerra hasia zuten (1936ko uztailaren 18-19an), sistema aldatu nahian. Altxamendu hori ez du lortuko Instituzioak bereganatzea eta bi bandoen arteko gerra piztuko da, Gerra Zibila (1936-1939)

Bi urte dirau gerrak testu hau argitaratzen denerako. Juxtu Ebroko ofentsiba baino zertxobait lehenago, Errepublikaren azken saiakera gerra irabazteko.

Legea argitaratzen denerako protagonista diren bi probintziak Gipuzkoa eta Bizkaia, errenditu dira, nazionalak Gipuzkoa 36ko urrian konkistatu ondoren eta Bilboko “burdin gerria” 27ko ekainean gairiditu ondoren. Nazionalen hasierako helburua, altxamenduaren arrakasta azkarrak porrot egin ondoren, Madril konkista izan bazen, honen defentsa sutsuak Franco eta Molaren estrategia aldaketa ekarri zuen eta iparraldeko industria eta aberastasuna lortzeko eraso iparraldera bideratu zuten. Errepublikarekin lerratutako bi probintzia hauek kontrolatzea iparraldeko eremu indutri-siderurgiko garrantzitsua kontrolatzea izan zen.

Bitartean, Franco, bando nazionalako boterea bereganatzen ari da. Altxatu ondoren eta Sanjurjoren heriotzaren ondoren, Franco “Generalísimo” eta “Caudillo” izendatu zuten, eta ondoren, ikusten ari garen urterako, 38rako, Estatu Berriaren eraikuntza ari dira. Bertan Partidu Bakarra osatuko da, eta Franco botere absolutua lortuko du eta bere borondatea lege bilakatuko da ia 40 urte luzez.

4) Iruzkina

Dokumentu honetan ikus dezakegu Frankok, gerra garaian eta ia berrogei urtez jarraituko dion diktadura osoan zehar, “Probintzia traidoreekiko” izango duen jarrera. Hauek, beraien “eskubide historikoak” guztiz galduko dituzte.

Alde batetik, bere zentralismoak, nazio eta estatu kontzeptuak ez ditu onartzen egoera bereziak estatuaren barruan. Baina garrantzi handiagoa duena, onartuko ez duena Probintzia horiek egindako “traizioa” izango da. Hau da, altxamenduaren aurka azaldu izana.

Are gehiago, bai Kontzertu Ekonomikoa, baita beste moduan Probintzia hauen egoera “pribilegiozkoa” izan dela uste duelako. Ideia honetan erroldatzen du Frankok bere erabakia, probintzia hauen kalifikazioa, traidoreak, zigortu behar izatea ekartzen du. Kasu honetan zigor hori, Kontzertu Ekonomikoaren galera izango da, Nafarroa eta Arabak berriz, leialtasuna erakustearen ondorio bezala, mantenduko duten bezala.



Tropa nazionalak Bilbon

Frankoren jarrera dokumentu honetan, ez da bertan geldituko, probintzia traidoreak izendatzea ondorio gogorrago eta luzeagoak izango ditu: gizarte zibilaren aurkako errepresio gogorra, euskal elizaren aurkako errepresioa, oinarrizko askatasunen galera, euskal kultura eta hizkuntzaren debekua. Jende askoren sufrimendua ekarri zuen, herri oso batena ere eta horren eragina oraindik sumatu dezakegu gaurko geure gizarte eta harremanetan.

Azken finean, Erregimen Zaharraren krisia eta Erregimen Liberal modernoaren arteko aldaketa, trantsizioa konpondu ez duen arazoaz ari gara hemen. Euskadik galdutako foru, lege propioak eta estatu liberalaren zentralismoaren arteko gatazkaren beste kapitulu baten aurrean gaude; kasu honetan, mende erdiko totalitarismoarekin nahasturik.

XIX. mende osoan zehar konpondu gabeko arazoa, XX. mende osoan zehar ere mahai gainean jarraituko du eta testu honetan irudikatzen dena ez da bakarrik diktadore baten zentralismo kontzeptua, estatu liberalaren funtsezko tendentzia baizik. Oraindik ere Euskal Gobernu probintzietako Aldundien eta Gobernu zentralaren arteko gatazkak ezagunak ditugu Autonomia Estatutu edo Kontzertu Ekonomikoaren inguruan.

Bukatzeko, eta aipatu bezala, testu honen garrantzia, gertakizun konkretuan baino, momentu horretatik aurrera Franko eta bere gobernuaren Euskadirekiko jarreraren koka genezake. Errepresioan, zapalketan, askatasun ezan eta horrek izan dituen ondorio sakon eta luzetan.

1968. urtean Dekretuaren zenbait atal leundu zituen, Kontzertua berrezarri gabe. Eta ez da izango Franco hil eta Konstituzio Demokratikoa (1978) idatzi arte, eta Trantsizioaren garaian barneratu arte, 1981ean, berriz ere Probintzia hauek Kontzertua berreskuratu zutela. Frankismoan zehar Nafarroa eta Araba “provincias exentas” izan ziren, Kontzertuen onurak izanik.